



OSASUN ETA KONTSUMO SAILAREN ETA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO APAREJADORE ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGO OFIZIALEN ARTEKO LANKIDETZAKO HITZARMENA KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDEAK BABESTEKO ETXEBIZITZA GAIA ETAN

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 29an

BATZARTURIK

Batetik, Javier Rafael Bengoa Rentería jauna, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailburua.

Bestetik, Agustín Mora Alonso jauna, Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialeko Presidentea; Iñaki Pérez Pérez, Bizkaiko Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialeko Presidentea eta Alfonso Arroyo de la Hoz jauna, Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialeko Presidentea.

Bi alderdiek, duten karguaren eta ordezkartzaren arabera, Hitzarmen hau sinatzeko eskumena dutela aitortzen diote elkarri eta horretarako

AZALTZEN DUTE

I.- Euskal Autonomia Erkidegoak bere kontsumo mailako eskumenak erabiltzen ditu Osasun eta Kontsumo Sailaren bidez, kontsumo mailan maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 13.1 artikulua ematen dizkion atribuzioen arabera, Dekretu hori baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailak sortzen, kentzen eta aldatzen dituen eta Sail horien funtzioak eta jardura eremuak zehazten dituen.

Bestalde, Pertsona Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 43. artikulua ezartzen duenez, "Euskadiko Administrazio Publikoek, dagozkien eskumen eremuetan, kontrol eta ikuskatze jarduerak egingo dituzte era koordinatuan merkaturatzeko edozein fasetan kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskura jarritako ondasun, produktu eta zerbitzuen gainean, era horretan, pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako indarrean den araudira egokitzen direla egiaztatuz, bereziki ezaugarri tekniko, higieniko -sanitario, segurtasun eta merkataritzako alderdiei dagokienez, eta horietaz jabetzea eragin ditzaketen aukerei dagokienez, hala badagokio, horien aurkezpen, publizitate, prezio eta bestelako gertaeretatik eratorritakoei dagokienez".



Bestalde, Kontsumo Zuzendaritzak, Osasun eta Kontsumo Sailera atxikiak, Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuan zehaztutakoaren arabera, besteak beste, ondoko eskumenak ditu: pertsona kontsumitzailea artatzea, pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileen Elkarten partaidetza sustatzea, kontsumoko bitartekotza sustatzea, merkatuaren ikuskatze eta kontrol zerbitzuak planifikatzea eta zuzentzea.

II.- Elkargo Profesionalen helburua, azaroaren 21eko 18/1997 Legean ezarritakoaren arabera, titulaturako profesionalen ordezkartza eta defentsa eta kolegiatuen interesen defentsa egitea da, gizartearen interes eta beharren arabera, eta bere berezko egitekoen artean Administrazio Publikoarekin lankidetzan aritzea interes komunak lortze aldera.

Elkargoen berezko egitekoen artean Administrazioarekin lankidetzan aritzea biltzen da ondokoetan: azterketak egitea, txostenak luzatzea, estatistikak eta bere helburuekin bat datozen bestelako jarduerak egitea, eskatutakoak edo Elkargoek eurek hala erabakita egindakoak.

III.- Euskadi bezalako Erkidego batean, zerbitzu sektorea nagusi denekoan, merkatuaren kontrol sistemaren funtzionamendu egokia eta prestakuntza egokia bermatzeak, bai kolegiatuena, kontsumitzaileen eskubideei dagokienez, bai kontsumoko teknikariena, etxebizitza gaietan, kontsumoan eskumena duten administrazio publikoen eta hiritarrei eskainitako zerbitzuen kalitatea hobetzean inplikaturik dauden erakundeen arteko lankidetzak eskatzen du.

IV.- Bi erakundeek kontsumitzailearen babeserako eremuan indarrean den araudia betetzen dela egiaztatzeko lankidetzan aritzeko asmoa azaltzen dute, kontrol administratiboko jardueretan estaldura tekniko handiagoa errazteko.

Ondorioz eta bi alderdien arteko lankidetzak arautzeko, lankidetzako hitzarmen hau sinatzen dute ondoko klausulekin bat

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren helburua

Lankidetzako Hitzarmen honen helburua Lankidetzak, Kooperazio eta Koordinazio Programa ezartzea da, pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babesteko etxebizitza gaietan, era horretan, interes orokorreko zerbitzua eskaintzeko pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileei eta Euskadiko Administrazio Publikoarekin lankidetzan aritzeko bere helburu eta egitekoen eremuan.



BIGARRENA.- Lankidetzaren eremua

Bi alderdien arteko lankidetzaren etxebizitzaren gaitan izapidetu daitezkeen erreklamazio eta zehapen prozeduretan oinarrituko da, eta bereziki, horiek aztertzeko behar den laguntza ematean; halaber, zehapen espediente batean behar diren peritu-txostenak luzatzean.

HIRUGARRENA.- Osasun eta Kontsumo Sailaren konpromisoak

Lankidetzako Hitzarmen hau garatzeko, Osasun eta Kontsumo Sailak, Kontsumo Zuzendaritzaren bidez, ondoko jarduerak egingo ditu:

1. Elkargoei tekniko peritua izendatzeko eskatzea, eskaerarekin batera espediente administratiboari dagokion dokumentazioa erantsita.
2. Kolegiatuei zuzendutako hedapen kanpainaren diseinuan lankidetzan aritzea.
3. Elkargoari egiten duen dibulgazio materiala ematea elkartekideen artean banatzeko.

LAUGARRENA.- Elkargoen konpromisoak

- Urtero kolegiatuen zerrenda egitea eta eguneratzea, Kontsumo Zuzendaritzak garatu beharreko lanak egiteko eskatutako profil profesional eta teknikoarekin (I. Eranskina). Horretarako, Elkargoei deialdia egingo dute kolegiatuen artean zerrenda hori egiteko.
- Sailak perituei Hitzarmen honetatik eratorritako jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko ordainsariak ezagutaraztea (II. Eranskina).
- Teknikari peritua izendatzea Kontsumo Zuzendaritzak planteatutako eskaera bakoitzerako.
- Behin peritu lana eginda, peritu lana egiteko izendatutako perituak Elkargoan aurkeztuko du lana onetsia izateko, aurkezten denetik 5 egun balioduneko epean egingo dena.
- Enkarguaren exekuzioan kolegiatuen betebeharrak profesionalak betetzea direla zaintzea.
- Ahalik eta konfidentzialtasun handienarekin tratatzea hitzarmen honen arabera egindako lan eta lankidetzaren guztietatik lortutako informazioa.
- Kolegiatuei zuzendutako hedapen kanpaina egitea.

BOSGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau indarrean izango da bi alderdiek sinatzen dutenetik eta 2010eko abenduaren 31 arte. Ondoz ondoko urtez luzatuko da, bi alderdietako batek berriaz salatzen duenean izan ezik, betiere hasierako indarraldia edo edozein luzapen amaitu baino bi hilabeteko gutxieneko aurrerapenarekin.



SEIGARRENA.- Finantzazio ekonomikoa

Hitzarmen honek ez du eduki ekonomikorik; beraz, Elkargoek ez dute diruzko ordainik jasoko euren gain hartutako konpromisoak exekutatzegatik.

Hitzarmen honek ez dio betebeharr ekonomikorik eragingo Osasun eta Kontsumo Sailari. Kolegiatutako perituek egindako lan indibidualei dagozkien ordainsariak baino ez ditu ordaindu behar izango.

ZAZPIGARRENA.- Publizitatea

Osasun eta Kontsumo Sailak eta sinatzen duten Elkargoek Hitzarmen hau ahalik eta gehien zabaltzeko konpromisoa hartzen dute egoki iritzitako komunikabideen bidez.

Edozein dela ere bidea, Elkargoek egindako Hitzarmen honen aplikaziotik eratorritako jarduerari buruzko publizitatean, berariaz jaso beharko da Osasun eta Kontsumo Sailaren lankidetzaz.

ZORTZIGARRENA.- Datuen babesa

Elkargoek Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa bete beharko dute. Horretarako, egindako datuen tratamendua, laugarren klausulan deskribatutako jarduerak egiteko arrazoi edo aukerengatik, tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera egingo da. Ez dituzte aplikatu edo erabiliko hitzarmenaren helburu ez denerako, eta ez die hirugarrenei jakinaraziko, ezta horien kontserbaziorako ere.

Elkargoek beharrezko izaera tekniko eta antolamendu mailako neurriak hartu beharko dituzte izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatzeko eta horien baimendu gabeko aldaketa, galera, tratamendu edo sarbidea ekiditeko.

Behin prestazioa beteta, Elkargoak bere esku izan dezakeen espediente administratiboari buruz duen informazio guztia suntsitu edo Kontsumo Sailari itzuliko dio.



BEDERATZIGARRENA.- Jarraipen Batzordea

Hitzarmen honen kontrol eta jarraipen egokirako Jarraipen Batzorde bat eratuko da, Kontsumo Zuzendaritzako bi ordezkari eta Elkargo bakoitzeko ordezkari batek osatutakoa. Batzorde horrek hitzarmenak planteatu ditzakeen interpretazio eta betetze arazoak ebatziko ditu.

Sin.: Rafael Bengoa Rentería
OSASUN ETA KONTSUMO SAILBURUA

Sin.: Agustín Mora Alonso
ARABAKO APAREJADORE ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGO
OFIZIALEKO PRESIDENTEA

Sin.: Iñaki Pérez Pérez
BIZKAIKO APAREJADORE ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGO
OFIZIALEKO PRESIDENTEA

Sin.: Alfonso Arroyo de la Hoz
GIPUZKOAKO APAREJADORE ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGO
OFIZIALEKO PRESIDENTEA



I. ERANSKINA

EZAUGARIAK ETA TEKNIKARI PERITUK BETE BEHARREKO EBALDINTZAK

PROFIL TEKNIKOA

5 urteko edo gehiagoko antzinakotasuna lanbidean, eta hala ez bada, arbitraje, peritazio judizial eta kalteen erreklamazioetan prestakuntza espezifikoa edo esperientzia egiaztatzea.

II. ERANSKINA

ORDAINSARI PROFESIONALEN BAREMOAK

UKITUTAKO ETXEBIZITZAK

Ukitutako etxebizitza kopurua	Ordainsariak (BEZ gabe)
Etxebizitza 1	365,00
2-6 etxebizitza	615,00
6 -10 etxebizitza	790,00
10 etxebizitza baino gehiago (zenbateko osagarria bakoitzeko)	100,00

ZONALDE KOMUNAK

Ukitutako azalera	Ordainsariak (BEZ gabe)
200 m ² -raino	365,00
200-500 m ²	430,00
500-1.000 m ²	630,00
1.000-5.000 m ²	830,00
5.000 m ² baino gehiago	1.120,00



CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO Y LOS COLEGIOS DE APAREJADORES Y ARQUITECTOS TÉCNICOS DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA PARA LA PROTECCIÓN DE LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS CONSUMIDORAS EN MATERIA DE VIVIENDA.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2010

REUNIDOS

De una parte, el Excmo. Sr. D. Javier Rafael Bengoa Rentería, Consejero de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco.

De otra parte, el Sr. D. Agustín Mora Alonso, Presidente del Colegios Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Álava; el Sr. D. Iñaki Pérez Pérez, Presidente del Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Bizkaia y el Sr. D. Alfonso Arroyo de la Hoz, Presidente del Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Gipuzkoa.

Las partes intervinientes, en razón de sus respectivos cargos y de la representación que ostentan, se reconocen capacidad suficiente para otorgar el presente Convenio y a tal efecto

EXPONEN

I.- Que la Comunidad Autónoma del País Vasco ejerce sus competencias en consumo a través del Departamento de Sanidad y Consumo en virtud de las atribuciones que en materia de consumo le confiere el artículo 13.1 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Que, por otra parte, el artículo 43 de la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias establece que "Las Administraciones Públicas de Euskadi, en sus respectivos ámbitos competenciales, desarrollarán actuaciones de control e inspección de modo coordinado sobre los bienes, productos y servicios puestos a disposición de las personas consumidoras y usuarias en cualquier fase de comercialización, a fin de comprobar su adecuación a la legislación vigente en materia de protección a las personas consumidoras y usuarias, en especial en lo que se refiere a sus características técnicas, higiénico-sanitarias, de seguridad y comerciales, y su adecuación a las expectativas que pueden motivar su adquisición, derivadas, en su caso, de las descripciones realizadas en su presentación, publicidad, precio y otras circunstancias".



Que, por otra parte, la Dirección de Consumo, adscrita a la Consejería de Sanidad y Consumo, tiene atribuidas, según se relaciona en el Decreto 579/2009, de 3 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad y Consumo, entre otras, las siguientes competencias: atender a la persona consumidora, impulsar la participación de las Organizaciones de personas consumidoras y usuarias, impulsar la mediación en consumo, planificar y dirigir los servicios de inspección y control de mercado.

II.- Que los colegios profesionales tienen por finalidad genérica, conforme a lo dispuesto en la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, la representación y defensa de las profesiones tituladas de que se trate y de los intereses profesionales de los colegiados en congruencia con los intereses y necesidades generales de la sociedad, constituyendo una de sus funciones propias la colaboración con la Administración Pública en el logro de intereses comunes.

Que entre las funciones propias de los Colegios se contempla la colaboración con la Administración mediante la realización de estudios, emisión de informes, elaboración de estadísticas y otras actividades relacionadas con sus fines que puedan serles solicitadas o que los Colegios acuerden formular por propia iniciativa.

III.- En una Comunidad como la del País Vasco en la que el sector servicios tiene un carácter preponderante, garantizar un adecuado funcionamiento del sistema de control del mercado y una adecuada formación, tanto de los colegiados, en relación con los derechos de los consumidores, como de los técnicos de consumo, en cuanto a la materia de vivienda, exigen la colaboración de las administraciones públicas competentes en consumo con las instituciones implicadas en la mejora de la calidad de los servicios que se prestan a los ciudadanos.

IV.- Que ambas instituciones manifiestan su deseo de colaborar en la observancia del cumplimiento de la legislación vigente en el ámbito de la protección al consumidor que facilite un marco de mayor cobertura técnica para las actuaciones de control administrativo.

En consecuencia y para regular la colaboración entre las partes, se suscribe el presente convenio de colaboración de acuerdo con las siguientes



CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto del convenio

El presente Convenio de Colaboración tiene por objeto establecer un Programa de Colaboración, Cooperación y Coordinación para la mejora de la protección de los derechos de las personas consumidoras y usuarias en materia de vivienda, con el objetivo de prestar un servicio de interés general para las personas consumidoras y usuarias y de colaborar en el ámbito de sus fines y funciones con la Administración Autónoma del País Vasco.

SEGUNDA.- Ámbito de colaboración

La colaboración de las partes se producirá en relación con las reclamaciones y procedimientos sancionadores que pudieran tramitarse en materia de vivienda, y consistirá, fundamentalmente, en prestar la ayuda que se precise en la investigación de aquéllas así como en la emisión de los informes periciales que se requieran en el curso de un expediente sancionador.

TERCERA.- Compromisos del Departamento de Sanidad y Consumo

Para el desarrollo del presente Convenio de Colaboración, el Departamento de Sanidad y Consumo, a través de la Dirección de Consumo, realizará las siguientes acciones:

1. Solicitar a los Colegios la designación de técnico perito, adjuntando a dicha solicitud la documentación correspondiente al expediente administrativo.
2. Colaborar en el diseño de una campaña de difusión dirigida a los colegiados
3. Facilitar al Colegio cuanto material divulgativo realice para su distribución entre los asociados.

CUARTA.- Compromisos de los Colegios

- Elaborar y actualizar anualmente una lista de colegiados, con el perfil profesional y técnico requerido por la Dirección de Consumo como idóneo para las labores a desarrollar por los mismos (Anexo I). A tal efecto los Colegios realizarán una convocatoria entre sus colegiados con el fin de elaborar la misma.
- Dar a conocer los honorarios que se abonarán por parte del Departamento a los peritos por la realización de las actuaciones derivadas del presente Convenio (Anexo II).
- Designar al técnico perito para cada una de las solicitudes planteadas por la Dirección de Consumo.
- Una vez realizado el peritaje el perito designado para la realización del peritaje lo presentará al Colegio para su visado, que se realizará en un plazo máximo de 5 días hábiles desde su presentación.



- Velar por el estricto cumplimiento de los deberes profesionales de los colegiados en la ejecución del encargo
- Tratar con la máxima confidencialidad toda la información obtenida con motivo de los trabajos y colaboraciones realizadas al amparo del convenio.
- Realizar una campaña de difusión dirigida a los colegiados

QUINTA.- Vigencia del Convenio

El presente convenio comenzará a producir efectos desde el día de su firma por ambas partes hasta el 31 de diciembre de 2010. Será prorrogado por periodos anuales sucesivos salvo que sea denunciado expresamente por cualquiera de las partes con una antelación mínima de dos meses a la finalización de la vigencia inicial o la de cualquiera de sus prórrogas.

SEXTA.- Financiación económica

El presente Convenio carece de contenido económico, por lo que los Colegios no recibirán contraprestación de carácter monetario por la ejecución de los compromisos adquiridos durante el mismo.

Este convenio no generará obligaciones económicas para el Departamento de Sanidad y Consumo, salvo el pago de los honorarios que se devenguen por los trabajos individuales realizados por los peritos colegiados.

SÉPTIMA.-Publicidad

Tanto el Departamento de Sanidad y Consumo como los Colegios firmantes se comprometen a dar la máxima difusión al presente Convenio a través de los medios de comunicación que estimen pertinentes.

En la publicidad que, a través de cualquier medio, los Colegios realicen sobre las actuaciones derivadas de la aplicación del presente Convenio, se hará constar expresamente la colaboración del Departamento de Sanidad y Consumo.

OCTAVA.- Protección de datos

Los Colegios quedan obligados al cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. A tal efecto, el tratamiento de los datos que efectúe, con motivo u ocasión de la realización de las actividades descritas en la cláusula cuarta, se realizará conforme a las instrucciones del responsable del tratamiento, no los aplicará o utilizará con fin distinto al que figure en el presente convenio, ni los comunicará, ni siquiera para su conservación, a terceras personas.



Los Colegios deberán adoptar las medidas de índole técnica y organizativas necesarias que garanticen la seguridad de los datos de carácter personal y eviten su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado.

Una vez cumplimentada la prestación, el Colegio procederá a la destrucción o devolución a la Dirección de Consumo de toda la información que sobre el expediente administrativo pudiera estar en su poder

NOVENA.- Comisión de seguimiento

Para el adecuado control y seguimiento del presente Convenio se constituirá una Comisión de Seguimiento integrada por dos representantes de la Dirección de Consumo y un representante de cada uno de los Colegios. Esta Comisión resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que pueda plantear el convenio.

Fdo.: Rafael Bengoa Rentería
CONSEJERO DE SANIDAD Y CONSUMO

Fdo.: Agustín Mora Alonso
PRESIDENTE COLEGIO OFICIAL DE APAREJADORES Y ARQUITECTOS
TÉCNICOS DE ÁLAVA

Fdo.: Iñaki Pérez Pérez
PRESIDENTE COLEGIO OFICIAL DE APAREJADORES Y ARQUITECTOS
TÉCNICOS DE BIZKAIA

Fdo.: Alfonso Arroyo de la Hoz
PRESIDENTE COLEGIO OFICIAL DE APAREJADORES Y ARQUITECTOS
TÉCNICOS DE GIPUZKOA



ANEXO I

CARACTERÍSTICAS Y CONDICIONES A CUMPLIR POR LOS TÉCNICOS PERITOS

PERFIL TÉCNICO

Antigüedad igual o superior a 5 años de ejercicio de la profesión, o en su defecto acreditar formación específica o experiencia en arbitrajes, peritaciones judiciales y reclamaciones de daños.

ANEXO II

BAREMO DE HONORARIOS PROFESIONALES

VIVIENDAS AFECTADAS

Nº Viviendas afectadas	Honorarios (sin IVA)
1 vivienda	365,00
2 a 6 viviendas	615,00
6 a 10 viviendas	790,00
Más de 10 viviendas (importe por cada una adicional)	100,00

ZONAS COMUNES

Superficie afectada	Honorarios (sin IVA)
Hasta 200 m ²	365,00
200 a 500 m ²	430,00
500 a 1.000 m ²	630,00
1.000 a 5.000 m ²	830,00
Más de 5.000 m ²	1.120,00